

Oposizioaren boikotarekin egin dira hauteskundeak Bangladeshen

Gutxienez bi lagun hil ziren biolentzia handiko egunean

Armada kaleetan hedatua zela eta ehundaka mila poliziaren zain-tzapean, hauteskundeak egin zituzten atzo Bangladeshen. Khaleda Zia lehen ministroaren alderdiak garaipena ziurtatuta dauka, oposizioako alderdi nagusiek asteartean iragarritako boikota egin baitzuten atzo. Herenegun hasi zen bi eguneko greba orokorrera deituz boikotatu zituzten hauteskundeak.

Agentziak / Daka

GUTXIENEZ bi lagun hil ziren atzoko hauteskunde egunean Bangladeshen, eta dozenaka zauritu, egunean zehar izandako istiluetan. Poliziaren arabera, bi biktimak Chittagon hirian hil ziren, hauteskundearen aldeko eta kontrako aktibistek egindako tiroketan. Hildakoetako bat hamasei urteko gazte bat da iturriek esan zuten.

Hauteskundearen aurkako aktibistek etxean egindako bonbak ere jarri zituzten, eta batez ere Chittagon izan ziren istilurik handienak. Bangladeshko bigarren hiri nagusia den horretan 50 lagun inguru zauritu ziren.

Daka hiriburuan, hauteskunde eguna «lasai» hartu zuten herritarrek, nahiz eta partehartzea, Bangladesh osoan bezala, oso txikia izan zen. Berrogeita hamasei milioi lagun zeuden deituta Bangladeshko behe ganbarako 300 aulkitan eseriko diren ordezkariak aukeratzeko. Parlamentua 330 kidek osatzen dute, baina 30 aulki legebiltzarkideek aukeratutako 30 emakume betetzen dituzte. Khaleda Ziaren



Khaleda Zia lehen ministroa garaipenaren zeinua egiten.

PAVEL RAHMAN / AP

Alderdi Nazionalaz gain 41 alderdi txikitako ordezkariak aurkeztu ziren, jaramonik egin gabe Awami Ligak, Jatiya Alderdiak eta Asanblea Islamikoak —oposizioako alderdi nagusiek— deitutako boikotari. Baina Alderdi Nazionala salbu, hauteskunde-tara aurkeztutako alderdi guztiak oso txikiak dira eta ordezkariak lortzeko aukera gutxi dute. Ziak, beraz, berrautapena ziurtatuta zeukan hauteskundeak egin aurretik ere.

Bi urtetik honako

krisia • Bangladesh egun bizi duen krisi politikoa duela bi urte hasi zen, hauteskunde partzial batzuetan gobernuko Alderdi Nazionalak betidanik Awami Liga ezkertiarrena izan zen lekuan

irabazi zuenean. Oposizioak Gobernuak akusatu zuen hauteskundeetan iruzur egiteaz, eta geroztik ezin konta ahala istilu izan da kaleetan.

Baina Awami Ligaren eta Alderdi Nazionalaren arteko lehia lehenagotik dator eta alderdi hauek bi buruzagien arteko —biak emakumeak— lehian oinarritzen da. Hasina Wajed Awami Ligako liderrak eta Khaleda Zia egindako presioek bultzatu zuten errejimen militarra 1991n hauteskunde demokratikoak egitera. Baina, orduetik, bi liderren arteko lehia handia izan da. Wajed Awami Khaleda Ziaren senarra eta aita akusatu zituen, bere aita Mujibur Ramhan —Bangladeshen fundatzailea— hiltzean zerikusia izateaz. X

AFGANISTAN

■ Gutxienez 60 lagun hil dira Kabul en arma biltegian izandako eztandan

LEHENDAKARITZA Jauregitik hurbil gertatutako leherketan, gutxienez 60 lagun hil ziren atzo eta zaurituak ere ugari izan ziren. Gobernuko ordezkari batek jakinarazi zuenez, Kabulgo arma biltegi batek eztanda egin zuen, argitzeke diren arrazoiengatik. X

RUANDA

■ Hutu errefuxiatuek ez dute herrira itzuli nahi

BI URTE honetan Zairen dauden hutu etniako (gehiengoa Ruandan) errefuxiatuek ez dute Ruandara itzuli nahi, Gobernuak babesa eskaini dien arren. Errefuxiatuak beldur dira, gutxiengoa den tutsi etniaren Fronte Patriotiko Ruandarra talde gerrillari ohiaren mugimenduak kontrolatzen baitu herria. X

E E B B

■ Gobernuak kritikatu egin du Farrakhanek Libia eta Iranera bidaiatu izana

LUOIS FARRAKHAN EEBBeko Islamo Errepublikako buruzagiak Libia eta Iranera egin duen bidai gaitzetsi du Gobernuak, bi herriok «terrorismoa» babesten dutelako. Nicholas Burns Estatu Saileko ledeadun esan zuen «lotsagarria» zela estatubatubat ondo pasatzen aritea Muammar al Gaddafirekin. X

JAPONIA

■ Ez dira erreskatatu tunelean dauden 20 lagunak

HOKKAIDO IRLAKO tunel batean lubizi batek harrapatu zituen 20 pertsonak artean erreskatatu gabeak zituzten atzo. Autobus bat eta auto bat daude tunelean. Saialdi ugari egin dira tunelaren sarrera oztopatzen duten tonak askoko harkaitzak apurtzeko. X

TOKI EDER IKASTOLA

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasketak
BETIDANIK ETA SOILIK
D EREDUKO
IKASTOLA PUBLIKOA
GARRAIOA ETA JANGELA
IZENAK EMATEKO EPEA:
Otsailaren 1etik 20ra
Informazio gehiago jasotzeko eta gurekin egoteko, deitu

Wellington dukea, 6-Lakua
Tel.: 17-12-10 - GASTEIZ

Hildako ugari Rio de Janeiroko uholdean

Gutxienez 56 lagun hil dira bi egunetan Brasilgo Rio de Janeiro estatuan, asteartean hasi zen uholdearen ondotik. Azken hogeita bost urteotako uholderik handiena da, eta Rio de Janeiro hiriko favela edo auzo pobreetan eragin ditu biktimak gehienak, 44 inguru. Oraindik ez da zehaztu desagertuak zenbat diren, baina etxerik gabe geratu direnak milaka dira iturri ofizialen arabera. Uholdeak, biktimak eta kalte material handiak eragiteaz gain, Brasilgo inauteriak ere bertan behera uztea eragin lezake; izan ere, adituen arabera, baliteke marka guztiak hausten ari den eguraldi txarrak asteburua arte irautea.

